

**D EREDUAN EUSKALDUNDUTAKO GAZTE
NAFARREN HIZKUNTZA ERABILERA,
JARRERAK ETA IDENTITATEAK:
IKERKETA PROPOSAMENA**

GRADU AMAIERAKO LANA

Euskal Ikasketetako Gradua

2018-2019 ikasturtea

Egilea: Ainhoa Pardina Arenaza

Zuzendaria: Ibon Manterola Garate

Gasteizen, 2019ko maiatzaren 19an

LABURPENA

Nafarroako eremu mistoan D ereduan euskaldundutako gazteen euskararen ezagutza, erabilera, jarrerak eta identitateak aztertzeko ikerketa baten abiapuntua aurkeztu nahi da Gradu Amaierako lan honetan. Zehazki, parte hartzaileen profil soziolinguistikora lehen hurbilketa egiteko galdetegi bat aurkeztuko da. Eusko Jaurlaritzaren “Ikasiker 2018/2019” Lankidetzaren Beka baten baitan kokatu behar da lan hau. Beka egitasmoa ELEBILAB ikerketa taldean ari da gauzatzen, eta hauxe da izenburua: “D ereduan euskaldundutako unibertsitate ikasle nafarren hizkuntza jarrerak eta identitateak”.

Lan honetan aurkeztuko den galdetegiaren helburu nagusia da Lankidetzaren Bekaren barruan aurreikusita dauden eztabaida talde eta banakako elkarrizketetarako auzi interesgarriak identifikatzea; bestela esanda, galdetegi hauekin jasotako informazioa erabili nahi da, besteak beste, eztabaida taldeak zein banakako elkarrizketak prestatzeko. Gradu Amaierako Lanaren xede nagusia erdiesteko, beste bi azpi helburu jarri dira, biak ere antzeko ikergaia izan duten beste azterlan batzuei lotuta: batetik, datu bilketarako metodologiak berrikustea, eta bestetik, aurrekaritzat jo diren ikerketa emaitza esanguratsu batzuk aurkeztea.

Sei ataletan banatu da lana: hasteko, Nafarroako egoera soziolinguistikoko orokorra nolakoa den azalduko da. Gero, ezagutza, erabilera, jarrerak eta identitateak ikertzeko hainbat datu bilketa metodologia aurkeztuko ditut, nahiz eta, esan bezala, guri orain galdetegiari dagokiona interesatzen zaigun gehien. Ondoren, gazteen euskara gaitasunari, erabilerari, jarrerei eta identitateei buruzko informazioa emango dut, hainbat ikerlarik egindako lan ezberdinetatik hartua. Azkenik, ikerketarako gure proposamena egingo dugu, ikerketaren helburuak, partaideak eta datu bilketarako tresna azalduz, hau da, galdetegia. Honela, esan bezala, zati horretan, galdetegia aurkeztera mugatuko gara, galdera multzoek parte hartzaileen profil soziolinguistikoaren zein alderdi aztertzea ahalbidetuko diguten azalduz. Lanaren azken bigarren atala ondorioena da eta bertan galdetegiak eman dezakeenaren aurreikuspen orokor bat egingo da. Galdetegiaren diseinua kontuan hartuta, aurreikus daiteke aukera izango dugula parte hartzaileek DBH bukatu eta unibertsitate adineko garaira arte egindako bilakaera soziolinguistikora lehen hurbilketa egiteko. Zehatzago, gazteen bizialdi horretan garatutako euskararekiko hizkuntza identitateak eta muda linguistikoak izango ditugu

hizpide, beste lan batzuetako emaitzak gogoan izanda. Lana bukatzeko, Lankidetzaren Bekaren barruan etorkizunerako planteatzen den norabidea aipatuko da.

Hitz-gakoak: galdetegi soziolinguistikoa, hizkuntza jarrerak, hizkuntza identitateak, D eredia, hiztun berri gazteak

AURKIBIDEA

0. Sarrera	4
1. Nafarroako egoera soziolinguistikoa	5
2. Jarrerak eta identitateak ikertzeko metodologia	8
2.1. Galdetegiak	8
2.2. Eztabaida taldeak	12
2.3. Entrebista pertsonalak	13
2.4. Ikertzailearen nolabaiteko parte hartzea	14
2.5. Idazlanak	15
3. Gazteen euskara gaitasuna, erabilera, jarrera eta identitateak	15
3.1. Gaitasuna	16
3.2. Erabilera	17
3.3. Jarrerak eta hizkuntza identitateak	18
4. Ikerketarako proposamena	21
4.1 Ikerketa helburuak	21
4.2 Partaideak	22
4.3 Datu bilketarako tresnak	22
4.3.1 Galdetegia	22
5. Ondorio gisa: aurreikuspenak	24
6. Etorkizunerako planteatzen den norabidea	25
I. Eranskina: Galdetegia	29

0. Sarrera¹

Azken hamar urteetan euskararekiko jarreraren eta erabileraren ikerketa esparruan ikuspegi kualitatiboekin egindako hainbat lan argitaratu da. Hiztun profiei dagokienez, lan batzuek euskaraz ez dakitenengan (Amorrortu eta beste, 2009) eta hiztun berriengan (Ortega eta beste, 2016) jarri dute arreta. Aztergaiei dagokienez, euskararen inguruko oinarrizko diskurtsoak aztertu dira Euskal Autonomia Erkidegora mugatuta (Martinez de Luna eta beste, 2016), edo Nafarroan euskara sustatzeko adostasun sozial berriak identifikatu dira (Erize, 2018). Ikerketa hauek guztiek Arrue Proiektua (Eusko Jaurlaritza, 2013) edo Inkesta Soziolinguistikoa (Eusko Jaurlaritza eta beste, 2017) bezalako ikerketa makro-kuantitatiboan ekarpenak osatzeko aukera ematen dute. Esate baterako, euskararen sustapenari buruzko jarreraren kasuan, Inkesta Soziolinguistikoa ematen dituen emaitza kuantitatiboan atzean egon daitezkeen jarrera eta ideologiak modu finagoan ikertu daitezke metodologia kualitatiboekin (eztabaida taldeak, banakako elkarrizketak, autobiografia linguistikoak eta abar), gorago aipatu ditugun lanetan egin izan den bezala.

Honela, aipatu berri ditugun soziolinguistikako ikerketa ildoak jarraituz, Nafarroako eremu mistoko gazteen euskararen erabilera, jarrerak eta identitateak aztertzeko ikerketa baten lehen pausoak aurkeztuko ditugu lan honetan. ELEBILAB ikertaldeak azken bi hamarkadetan euskara-gaztelania gaitasunen garapenaz egindako lanei segida eman nahi zaie, taldearen aurreko ikerketetan parte hartutako gazte berberen hizkuntza jarrerak eta identitateak aztertuz. Lan honetan, zehazki, aipatutako gazteen gaur egungo profil soziolinguistikora lehen hurbilketa egiteko galdetegi bat aurkeztuko dugu, euskararen ezagutzari, erabilerari eta jarrerei buruzkoa. Horretarako, beste helburu batzuk ere zehaztu dira GRALean, hain zuzen ere, ikergaiarekin zerikusia daukaten datu bilketarako metodologiak eta aurretik egin diren ikerketa batzuen emaitzak aurkeztea. Galdetegietako emaitzetan oinarrituta, asmoa da eztabaida taldeak eta banakako elkarrizketak diseinatzea eta egitea, aipatutako parte hartzaileen euskararekiko jarreretan eta hizkuntza identitateetan sakontzeko.

¹Eusko Jaurlaritzaren "Ikasiker 2018/2019" Lankidetzaren Beka baten baitan kokatu behar da lan hau. Beka egitasmoa ELEBILAB ikerketa taldean ari da gauzatzen IT983-16 egitasmoari esker, eta hau da izenburua: "D ereduaren euskalduntutako unibertsitate ikasle nafarren hizkuntza jarrerak eta identitateak" (zuz. Ibon Manterola).


Hemen aurkeztu dugun ikerlana Nafarroako eremu mistoan kokatzen da. Euskararen ofizialtasunari dagokionez, Euskararen Legeak bereizten dituen hiru eremuetako bat da eremu mistoa. Bertan, euskara ez da guztiz ofiziala baina legediak aukera ematen du euskara neurri batean bada ere sustatzeko. Eremu euskaldunean euskara ofiziala da gaztelaniarekin batera, eta aldiz, eremu ez euskaldunean, gaztelania bakarrik da ofiziala.

Sei ataletan banatu da lana: lehenengoan, Nafarroako egoera soziolinguistikoa aurkeztuko dugu; bigarrenan, jarrerak eta identitateak ikertzeko hainbat datu bilketa metodologia; hirugarrenean, gazteen euskara gaitasuna, erabilera, jarrera eta identitateei buruzko hainbat ikerketa aurrekari ekarriko dugu; laugarrenean, ikerketarako proposamen bat egingo dugu; bosgarrenean gure aurreikuspenak zeintzuk diren esango dugu; azkenik, seigarrenean, etorkizunerako planteatzen den norabidea zein den azalduko dugu.

1. Nafarroako egoera soziolinguistikoa

Euskararen eta gaztelaniaren ofizialtasunari dagokionez, Nafarroan hiru eremu daude: eremu euskalduna (gaztelaniarekin batera, euskara ofiziala da Nafarroa iparraldean: Auñamendi, Baztanaldea, Bortziriak, Sakana, Leitzaldea, Malerreka eta Ultzamaldeko herri gehienak), eremu mistoa (euskara ez da gaztelania bezain ofiziala eta Nafarroa erdialdea hartzen du: Agoitzaldea, Erronkari-Zaraitzu, Iruñerria, Lizarraldeko ipar ekialdeko herriak, Garesaldeko herri gehienak eta Tafallaldeko herrien erdiak) eta eremu ez-euskalduna (euskara ez da ofiziala Nafarroa hegoaldean: Irunberrialdea ia osoa, Tafallaldeko herrien beste erdiak, Tuteralea, Vianaldeko ia herri guztiak, Zangozaldeko herri gehienak, Lizarraldeko hego mendebaldeko herriak eta Erribera). Banaketa honi dagokionez, aipagarria da biztanle gehien eremu mistoan eta ez-euskaldunean daudela. Horretaz gain, kontuan hartu beharrekoa da biztanle guztiek ez dakitela euskara, guztiek ez dutela hizkuntza honekiko jarrera bera eta, gainera, hiztunen banaketa geografikoa ez dela bateratua, beheko grafikoaren bidez Erizek (2018) erakusten duen moduan:

1. Grafikoa:



(Erize, 2018)

Bertan ikus daitekeen bezala, jarreraren, gaitasunaren eta erabilaren bilakaera ia elkarrenganako paraleloa da, nahiz eta arinki gorako joera izan 1991tik. Azkeneko datua 2016koa da eta urte horretan jarrera mesedegarria %33koa dela ikus daiteke, euskarazko konpetentzia linguistikoa %23koa eta erabilera %15ekoa. Beraz, Erizek (2018) gogorarazten du jarreraren kurba dela altuena eta jarrera mesedegarriek marko sozial bat sortzen dutela non ezagutza eta erabilera areagotu daitezkeen.


Gorago aipatu bezala, Nafarroako eremuen arabera emaitza hauek aldakorrak dira, eremu euskaldunean euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera askoz handiagoa baita (%68,1), eremu mistoan (%36,3) edo eremu ez euskaldunean (%19,1) baino, (Nafarroako Gobernua eta beste, 2017).

Euskararen legezotasunak Nafarroan dauzkan mugak handiak izanik ere, hezkuntzako eredu linguistikoei dagokienez, hainbat aukera daude: guztia euskaraz ikastea, gainerako hizkuntzak izan ezik (D eredua), ikasgaien erdia euskaraz eta beste erdia erdaraz ikastea (B eredua), ikasgai guztiak erdaraz izan arren euskara ikasgai bezala ematen duena (A eredua) eta, azkenik, euskararik irakasten ez den eredua (G eredua). Hala ere, kontuan izan behar dugu eremu euskaldunerako A, B eta D ereduak baimentzen direla; eremu mistorako A, B, D eta G ereduak eta, azkenik, eremu ez-euskaldunerako A, D eta G ereduak (Aldasoro, 2001). Beraz, eremu euskaldunean da bakarrik derrigorrezkoa euskara ikastea, beste bietan G eredua aukera daiteke.

Joan den mendeko laurogeigarren hamarkadatik aurrera Nafarroan D eredia hedatuz joan da, nahiz eta bilakaera hori oro har mantsoa izan den eta ez duen lortu euskararik gabeko G ereduaren matrikulazio portzentajeetara gerturatzea: G ereduaren matrikulatu diren ikasleen portzentajea %50 inguruan mantendu da azken hamar ikasturteetan, eta aldiz, garai berean, D ereduko matrikulazioa %30 gainditu ezinda dabil (Berria, 2019).

Ondoko grafikoan hobeto ikus daitezke hezkuntza ereduaren aukeraketak:

2. Grafikoa:



(Erize, 2018)

Erizek esaten duen bezala (2018), honelako hautuak egiterakoan, balore linguistiko eta identitarioak adierazten dira eta aurreko grafikoan ikusi ditugun datuak aukeraketa linguistikoaren prozesu kolektiboaren emaitzak dira. Gainera, ikus daitezkeen bezala, bigarren grafiko honen kurbak ere ia horizontalak dira eta, honek, lehentasun linguistiko nahiko egonkortua adierazten du.

Testuinguru soziolinguistiko orokorra dela eta, Nafarroan euskararen sustapenak ez dauka adostasun sozio-politiko handirik, Inkesta Soziolinguistikoek erakutsi izan duten moduan; izan ere, gorago esan bezala, bertako 16 urtetik gorako biztanleen %33,3 euskararen erabilera sustatzearen alde dago, %39,1 aurka dagoen bitartean (eta, beraz, %27,6 ez alde eta ez aurka).

Erizek bere lanean (2018) euskarari buruzko adostasun eta desadostasunen oinarri diskurtsiboak argitu eta oinarrizko adostasun sozial berriak identifikatu ditu. Bere

esanetan, aniztasun handia dago euskararekiko bizipen pertsonalei dagokienez. Baina hala ere, euskararen sustapenerako funtsezko zortzi adostasun identifikatu ditu ikerlariak. Esate baterako, euskararen eta gazteleraren hiztunen arteko errespetuaren beharra eta euskararekiko hizkuntza politika alderdikarieratik banatu beharra. Desadostasunak ere aurkitu dira: besteak beste, herritarren nahi eta behar linguistikoekiko administrazioaren erantzuna nolakoa izan behar den, edota euskara inposatu den edo ez.

Honela, Nafarroako egoera azaltzen amaitzeko, aipagarriak dira Erizek (2018) aipatzen dituen arazoak; izan ere, hizkuntza plangintza eta politika linguistikoa egiten dutenei dagokienez, hauen eragina izan dezakete. Hiru arazo dira funtsean: euskarari buruzko diskurtso sozialen polarizazioari dagokion arazoa; politika linguistikoarekiko interes ezberdina dutenen arteko elkarrizketa urritasuna; eta, politika linguistikoaren igorlearen eta gizartearen arteko oihartzun sozialen mugari dagokienak.

Hau guztia kontuan hartuta, interesgarria deritzogu etxetik erdaldunak diren eta D ereduan euskalduntutako Nafarroako eremu mistoko unibertsitate adineko gazteen euskararen ezagutza, erabilera, jarrerak eta identitateak zeintzuk diren aztertzeari.

2. Jarrerak eta identitateak ikertzeko metodologiak

Gazteen hizkuntza identitatea aztertzeke hainbat modu daudela ikusiko dugu jarraian, erabilienak diren bost metodologia interesgarri ikusiz: galdetegiak, eztabaida taldeak, entrebista pertsonalak, ikertzailearen nolabaiteko parte hartzea eta, azkenik, idazlanak. Hala ere, garrantzia handiena galdetegiei dagokion atalari emango zaio, lan honetan galdetegi bat aurkeztuko delako, Nafarroako aipatutako gazteen identitate linguistikoa aztertzeke.

2.1. Galdetegiak

Galdetegien bidez gauzatutako hainbat ikerketa egin dira, hala nola, inkesta soziolinguistikoak, Arrue proiektua, Ortega eta beste (2016), Martinez de Luna eta beste (2016), Larrañaga (1995), Berasategi (2014), Gerenabarrena (2015), Olasagarre eta beste (2019), etab. Jarraian hauetako bakoitzak galdetegia zertarako erabili duen azalduko da.

Hasteko, galdetegiak zer eta nolakoak diren, nork erabiltzen dituen eta zertarako erabiltzen diren uler dezagun, Gerenabarrenaren (2015: 43) hitzak ekarriko ditut, ezin hobeto azaltzen baitu hau guztia:

"Metodo kuantitatiboetako galdetegia zenbait diziplinatako ikerketek garatutako tekniken konbinazioa da. Psikologoek, antropologoek eta zientzialarien esperientzietatik abiatzen da. Horiek ikerketa-baliabide moduan erabiltzeaz gain, diagnostiko edo terapia moduan ere erabili izan dira (...). Galdetegiak helburuak, diseinua eta edukia dituzte bereizgarri. Inkesten ezaugarriak lortu nahi diren helburuen arabera izango dira."

(Gerenabarrena, 2015)

Definizio eta datu hauez gain, Gerenabarrenak (2015), hainbat ezaugarri interesgarri azaltzen dizkigu, galdetegi bat diseinatzerakoan kontuan hartzea komeni direnak. Esate baterako, motibazioaren eta jarreraren eraginak aztertzeko, galdera zuzenak egiten direla adierazten du. Halaber, izaera inpersonala duenez, neurketa-moduak uniforme bihurtzen ditu eta galdetegiaren beste abantaila bat elkarrizketatuak anonimoak izatea da, eta, beraz, askatasuna dute euren iritzia emateko.

Behin oro har galdetegiak dituzten ezaugarriak ikusita, goian aipatutako ikerketa bakoitza ekarriko dugu, esan bezala, bakoitzaren galdetegiaren erabilera apur bat azaldu nahian. Lehenik, Inkesta Soziolinguistikoa zer diren galdetegiak, erantzuna honakoa litzateke, Patxi Baztarrikaren esanetan (2016): 16 urte edo gehiagoko biztanleen hizkuntza-gaitasuna, euskararen, gaztelaniaren edota frantsesaren ezagutza erlatiboa, lehen hizkuntza, transmisioa, galerak eta irabaziak eta eremuz eremuko euskararen erabilera aztertzen ditu. Era berean, euskararen egoerari buruz nahiz euskararen erabilera normalizatzeko eman beharreko urratsei buruz biztanleriaren jarrerak eta interesak nolakoak diren jasotzen ditu Inkestak.

"Beraz, esan daiteke Inkestaren helburu nagusia dela zentsu eta errolden maiztasun berarekin (...) azterketa sakona, jarraitua eta ahalik eta sistematikoena egitea euskararen bilakaera sozialari buruz, era horretara zentsu eta errolden azterketa bidez eskuratutako datuak eta inkestakoak eratzeko aukera eskainiz, eta, gainera, azterketa hori euskararen lurralde guztietan egitea, EAEren, Nafarroako Foru Erkidegoaren eta Iparraldeko instituzio publikoen arteko lankidetzaren bidez".

(Baztarrika, 2016)

Lehendabiziko inkesta soziolinguistikoa 1991n egin zen eta bost urtetik behin egiten da, Baztarrikaren esanetan (2016). Gainera, urtez urte inkestatu diren pertsona

kopurua handituz joan da. Datu-bilketa egiteko, galdetegi egituratua eta itxia erabiltzen da eta laginketa adinaren, sexuaren eta gune soziolinguistikoaren arabera egiten da, lurraldeka.

Inkesta soziolinguistikoak lau aztergai nagusi ditu (Baztarrika, 2016): 1) 16 urte edo gehiagoko herritarren hizkuntza-gaitasuna; 2) Euskararen belaunez belauneko transmisioa; 3) Euskararen erabilera hainbat eremutan; 4) Euskararen egoerari buruz nahiz euskararen erabilera normalizatzeko eman beharreko urratsei buruz herritarrek dituzten jarrerak.

Metodologia hau darabilen beste adibide bat dugu, esaterako, Ortegarena eta besterena (2016). Hala ere, euren lanean aipatutako metodologia honez gain, eztabaida taldeak ere egin zituzten, ikerketa kualitatiboarekin euskal hiztun berrien profil desberdinetakoen motibazioak eta jarrerak azaleratzeko. Galdetegiak erabili zituzten ikerketa kuantitatiboa gauzatzeko, euren esanetan, ikerketa kualitatiboak emaniko gai edo auzi bereizgarri, garrantziko edo pertinenteak neurtzeko. Honela, egile hauek, lan honetan, EAEko hiztun berrien populazioarekiko estatistikoki adierazgarria den lagin bat atera zuten.

Gure lan honetarako interesgarria den beste ekarpen bat, metodologia hau darabilena, Arrue Proiektuarena da, eskolari lotuta dagoena (Eusko Jaurlaritza, 2013). Bertan, Euskal Autonomia Erkidegoko LH4ko DBH2ko ikasleen eskola giroko hizkuntza erabilerak aztertzen dira; hau da, euskara eta gaztelera zenbat erabiltzen dituzten eta erabilera hori errazten edo zailtzen duten aldagaiak zeintzuk diren ikertzen da. Honela, besteak beste, parte hartzaileen lehen hizkuntzari, hizkuntza ereduari, ahozko gaitasun erlatiboari, hizkuntzekiko begikotasunari eta hedabideen kontsumo hizkuntzari buruz edo erabilera hainbat esparrutan nolakoa den galdetu zieten parte hartzaileei.

Arrue proiektuak egindakoaz gain, badira ikasle batzuei egindako galdetegi gehiago, besteak beste Olasagarrek eta bestek egindakoa (2019). Hauei dagokienez, DBHko ikasleen hizkuntza atxikimendua aztertzeko, galdetegi bat prestatu zuten, ikerketaren bi fasetan biltzeko: heziketa jarduera batzuen aurretik eta ondoren. Galdetegiaren lehen erregistroan 270 ikasleren erantzunak jaso zituzten; bigarreanean, 277renak.

Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoen lanketan (EGOD) ere, (Martinez de Luna eta beste, 2016), zeina hizkuntza ideologietan zentratuta dagoen, galdetegia erabili zen, beste ikerketa-instrumentuekin batera. Herritarren diskurtsoen, balio linguistikoen eta motibazio mota ezberdinen hedapen eta pisu soziala ezagutzea zen proiektu honetan garatutako inkestaren helburua. Diseinatutako galdetegiei dagokienez, galdera batzuk erantzun mugatuko galderak dira, beste batzuk erantzun irekikoak eta, beste batzuk, eskalakoak. Honela, bestek beste, honelako galderak ikus ditzakegu: "sentitu zara inoiz diskriminatuta euskaraz hitz egin nahi izateagatik?", "zer datorkizu burura 'euskara' hitza entzutean?", "politikaz hitz egite(a)n (...) zu zein tokitan kokatuko zinateke, Oitk 10erako eskalan, zeinetan 0ak ezker muturra eta 10ak eskuin muturra esan nahi duten?".

Amaitzeko, Gerenabarrenaren tesiaz gain (2015), beste bi tesi aipa daitezke atal honetan, Larrañagarena (1995) eta Berasategirena (2014) hain zuzen ere. Hauek, euren tesia aurrera eramateko eta landa lana egiteko, galdetegiak erabili zituzten. Larrañagaren tesiari dagokionez (1995), bere ikerketak euskararekiko jarrerak euskara ikaste edo lantze eta, batez ere, erabiltzeko duten garrantzia aztertzea eta -ahal den neurrian- neurtzea ahalbidetu du. Ikerketari ari nagusia eman diona, Larrañagaren esanetan, jarreraren eraginari buruzko ikuspuntua izan da, ikasterakoan eta erabiltzerakoan gizartean gertatzen diren hizkuntzazko jokabideei gagozkiolarik. Honela, gazteek euskararekiko dituzten jarrerak zuzenki jasotzeko asmoz, galdera irekien bidea erabili zuten, "zer da zuretzat euskara?" bezalako galderak eginda, aukera mugatuko galderak egiteaz gain.

Berasategiren tesiari dagokionez (2014), bere ikerketaren helburu nagusiak, ikasleen praktika linguistiko eta kulturalak aztertzea, euskararen erabilera eta euskal kulturaren praktikan eragiten duten faktoreak aztertzea, eta euskararen eta euskal kulturaren arteko lotura azaltzea dira. Honela, bere ikerketan, ikasleen praktika linguistikoak eta kulturalak nolakoak diren jakiteko asmoz, eta euskararen eta euskal kulturaren praktikan eragiten duten faktoreak aztertzearen, teknika kuantitatiboan oinarritu da bereziki. Horretarako, galde-sorta bat erabili du. Dena den, galde-sorta horren barruan, galdera irekiak ere baliatu ditu, izan ere, hauen bidez, ikasleek, idazteko eta erantzuteko zein hizkuntza aukeratu duten aztertuz, gaztetxoek hizkuntza-erabileraren edo jokaera errearen neurketa egin du; beraz, metodologia kuantitatiboa eta kualitatiboa uztartu ditu. Honela, Berasategik (2014) erabili zuen galde-sorta,

ondorengo azpiataletan dago banatuta: soziodemografikoa, linguistiko-kulturala, psikosoziala eta psikopedagogikoa.

2.2. Eztabaida taldeak

Eztabaida-taldeak zer diren uler dezagun, hona hemen Amorrortu eta besteren azalpena:

"Jarrerak biltzeko zeharkako metodo kualitatiboa da (...). Helburu nagusia gai bati buruz aukeratutako lagun taldekideek dituzten uste, jarrera eta sentipenei buruz, eta gai horien inguruan izan duten esperientziari buruz informazioa eman dezaten aukera sortzea da, horretarako berariaz antolaturiko elkarrizketa edo eztabaidaren bitartez. Metodo hau oso egokia da gai baten ikuspegi anitza azalertzeko eta arrakastatsua izango da, besteak beste, eztabaidaren moderatzaileak bere lana modu egokian egiten badu."

(Amorrortu eta beste, 2009)

Ikertzaileak bere lana modu egokian egiteko, ikertzaileak gaitegi bat eramatea komeni da, eztabaida aukeratu den gaitik gehiegi ez aldentzeko. Gainera, solaskideak eroso sentitzeko, ezinbestekoa da giro erlaxatua sortzea. Horretaz gain, ez da komeni zuzenean partaideei ikerketaren helburuak argitzea, aurreiritziak jaso beharrean, norberaren esperientzia eta bizipenetatik abiatzea lortzeko (Amorrortu eta beste, 2009). Honela, Ortegak eta bestek (2016) egin bezala, eztabaida-taldeak moderatzailearen interbentzio minimoarekin egitea komeni da, parte hartzaileek eurentzat benetan garrantzizkoak diren gaiak ateratzeko aukera izan dezaten.

Metodologia honek ikerketa kualitatiboa egitea ahalbidetzen du, ikergai diren hiztunak "nolakoak" diren erakuts diezagukelako, bereizgarriak diren ezaugarriak bakarrik kontuan hartu beharrean, parte hartzaileek garrantzizkoak iruditzen zaizkien gaiak ateratakoan, hauek ere kontuan hartzea ahalbidetzen duelako.

Ortegaren eta besteren (2016) lanera bueltatuz, kasu honetan, 9 eztabaida-talde eta 9 bakarkako elkarrizketa erdi-gidatu egin zituzten (azken hau ere metodologia honen barruan sar dezakegu, nahiz eta jarraian aurkeztuko dugun metodologiatik ere gertu dagoen), guztira 75 hiztun berrik emandako datu-basea lortuz.

Partaideen ezaugarri soziodemografiakoei dagokienez talde heterogeneoak ziren eta Bilbon, Gasteizen, Bermeon eta Zumaian egin ziren gehienak. Bazegoen talderen bat

ikasle unibertsitarioek osatutako talde homogeenagoa: partaide denak murgiltze-ereduan euskaraz ikasitako gipuzkoarrak izan ziren.

Badira metodologia hau erabili duten beste hainbat lan ere, besteak beste, Escandonen lana (2016). Gasteizko gurasoek euskararen transmisiorako dauzkaten ideologiak eta estrategiak deskribatzen dira ikerketa honetan. 5-7 kideetako hiru eztabaida talde egin ziren. Alde batetik, guraso biak euskaldunak diren bikotekideek osatutako talde bat; beste alde batetik, bi gurasoetako bat euskalduna den bikotekideek osatutako beste talde bat; azkenik, hirugarrena, guraso erdaldunek osatutakoa. Bi dinamika erabili ziren hiru taldeetan; alde batetik, galdera orokor batzuekin eraikitako gidoi bat eta, bestetik, euren motibazioaren arabera egokienak aukera zitzaten, euskararen transmisioaren inguruko balizko lelo batzuk erakutsi zizkien. Lelo bakoitzak mezu bat transmititzen zuen eta informazioa zeharka lortzen saiatu ziren. Guztira talde bakoitzaren iraupena 60 eta 75 minutu bitartekoa izan omen zen.

2.3. Elkarrizketa pertsonalak

Metodologia honi dagokionez, Paula Kasaresen tesia aipatu behar da (2014), non, hogeitabi bikote nafar entrebistatu zituen, euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan ikertzeko asmotan. Ikerketa etnolinguistikoa dei dakioke lan honi, zeina, metodologiari dagokionez, datu bilketan ikerlariaren inplikazioan oinarritzen den, ikertzailea ikerketan bertan nolabait murgildu egiten baita, entrebistetatik ateraz informazioa eta ikertuen eguneroko jarduna benetako egoeretan bertatik bertara behatuaz. Lan honetan, informazio emaileen hizkuntzari dagokien hainbat ideologia, estrategia eta erabilera antzeman daitezke, baita motibazio mota ezberdinak ere (kanpo motibazioa, barne motibazioa, zehatzago esateko, motibazio instrumentala eta motibazio integratzailea).

Metodologia hau darabilen beste lanetako bat gorago aipatu duguna da, Escandonen lana, hain zuzen ere (2016). Kasu honetan, sakoneko bi elkarrizketa egin zituen bi guraso etorkinekin, biak gaztelaniaz.

Azkenik, metodologia hau erabili duen beste lan bat, Ikardorena (2017) da. Helburua da erakustea hizkuntzaren jarraipena ez dela gertaera mekanikoa, hiztunen erabaki eta hautuetan oinarritzen dela baizik. Bizipen eta ikuspegi ezberdinei tokia egiteko eta posizio aniztasuna bermatzeko, profil guztien oreka egokia lortu zen,

zehatzago, sexu, jatorri eta bikote tipologia ezberdineko gurasoena. 13 elkarrizketatan, guztira 17 lagun elkarrizketatu zituzten, batzuek nahiago izan baitzuten elkarrizketa bikote gisa egitea.

2.4. Ikertzailearen nolabaiteko parte hartzea

Aipatu nahiko nukeen hurrengo metodologia Jone Miren Hernandezek eta Jaime Altunak erabilitakoa da, "Gu gazteok" izenburupean laburbiltzen den lanean erabilitakoa (2017), zeinak gazteekin elkartuta ikertzailearen nolabaiteko parte hartzea eskatzen duen. Zehatzago esanda, "kuadrillategi" izeneko egitasmoa, hau da, lagunartean edo koadriletan euskararen erabilera sustatzeko helburuz garatzen den programa, aprobetxatuz behaketa saio bat egin zuten, gazteen jarrera eta hizkuntza-praktikak giro informalago batean jasotzeko aukera aprobetxatzeko asmoz. Bertan, talde dinamikek huts egin omen zuten baina, horrek, gazteak lagunartean daudenean, hau da, "egoera" naturaletan, nola egoten diren ikustea ahalbidetu zien. Honela, autore hauen arabera, ikerketa kualitatiboa gauzatzeko metodo egokia da, hasiera batean behintzat, ikergai izan diren gazteak euren osotasunean "nolakoak" diren ikustea ahalbidetu dezakeelako. Gainera, aipatutako ikertzaileen esanetan, nerabeek euren buruak nola ezaugarritzen dituzten eta nola definitzen duten gazte izatea jakitea komeni da, baita ikerlariek gazteak, euskal hiztun gisa baino, gazte bezala ezagutzen saiatzea ere.

Honela, bi ikertzaile hauek dakartzaten Lamarreren (2013) hitzen arabera, gazteen parte hartzea dinamizatu, egunerokotasunarekin lotutako praktikei erreparatu eta malgutasunarekin jokatu behar da, ia ezinezkoa omen delako hizkuntza, hizkuntza-identitatea zein hizkuntza-praktikak galdetegiek betetzeko eskaintzen dizkiguten "kaxatxoetan" sartzea, (Lamarre, 2013 in Hernandez eta Altuna, 2017).

Badaude autore gehiago antzeko metodologia erabili zutenak eta, beraz, hemen aipatzea merezi dutenak; hala nola, Amorrortu eta beste (2018). Hauen esanetan, euren ikerketaren lehenengo faseko helburu nagusia zen unibertsitate eremuko muda linguistikoen prozesua ulertzea, euskara familiatik kanpo ikasi duten Bilbo Handiko gazteen kasuan, baita mudak garatzeko dauden posibilitateak aztertzea ere. Honela, Deustuko Unibertsitatean eta "Begoñako Andra Mari"n aritu ziren lanean. Unibertsitate eremu hau erabili zuten, aurrerago ikusiko dugun bezala, mudak gerta daitezen eremu eta momentu egokia delako unibertsitate aroa.

Horretarako, erabili zuten metodologia ekintza parte-hartzailea izan omen zen, hausnarketa soziolinguistiko batean oinarrituta, zeina parte hartzaileek gauzatutako mini-etnografiaren eta talde hausnarketa baten emaitza izan omen zen.

2.5. Idatzizko testuen ekoizpena

Metodologia hau izango da aipatuko den azkena, nahiz eta ez zaion aipatutako beste metodologiaren garrantzi bera emango. Hain zuzen ere, metodologia honek idazlanak egitean datza, eta Larrañagak (1995) bere tesia gauzatzeko erabili zuen.

Ikertzaile honen esanetan, euskararekiko jarrerak sakonago aztertzeke erabili zuen metodologia hau eta, horretarako, euskarari buruzko idazlan bat idazteke eskatu zien gaztetxoei, beraientzat euskara zer den libreaki adierazi zezaten. Larrañagak datu bilketa mota honen hainbat onura adierazten ditu: ikerlariaren galderak erantzunean izan dezakeen eragina murriztu egiten dela esaten du batetik eta, bestetik, erantzuleari ez zaiola inolako mugarik ezartzen galdera erantzuterakoan. Gainera, aipatutako onuren ondorioz, metodologia hau erabiltzeak errealitatea hurbilagoz aztertzeke aukera ematen du autorearen arabera, gazteek askeago idatziko eta adieraziko dutelako, ikerlariaren eraginik gabe eta inolako mugarik gabe, benetan beraientzat euskara zer den.

Euskal Herritik kanpo ere, hizkuntza jarrerak ikertzeke, gazteek ekoiztutako idatzizko testuak erabili dituzten ikerketak topa daitezke, adibidez, Ribera eta Costaren (2013) lana, valentziar erkidegoan egina. Bertan, Lehen Hezkuntzako bigarren eta seigarren mailako ikasleei Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailako ikasleei eta unibertsitateko bigarren mailako ikasleei eskatu zitzaizen autobiografia linguistikoak idazteke. Testu hauetan, ikasleek hizkuntzekin lotutako euren bizi esperientziak idatzi zituzten, hala nola, idatzizko ekoizpenari dagokionez dituzten lorpen edo zailtasunei buruz, eta hortik abiatuta, ikerlariak ikasleen jarrerak aztertu ahal izan zituzten katalanari eta gaztelaniari buruz.

3. Gazteen euskara gaitasuna, erabilera, jarrera eta identitateak

GRAL honen bigarren helburu nagusia da nerabe-gazteen euskara gaitasuna, erabilera, jarrera eta identitateak ikertu dituzten lanen berrikusketa egitea. Honela, gure galdetegia egiteko kontuan hartu beharreko alorrak dira hauek. Batzuetan, Nafarroan

bildutako datuak izango dira hizpide, baina besteetan EAEkoak. Dena dela ere, kasu guztietan nerabe edota gazteei buruzko ikerketak ekarriko ditugu lanera.

3.1. Gaitasuna

Nahiz eta adinaren aldetik urrun gelditzen den GRAL honetan aurkeztuko den ikerketako parte-hartzaileen aldetik, ondoren aipatuko ditugun lanak agertzea derrigorrezkoa da, parte hartzaileak GRALean aurkeztuko ditugun ikerketako berberak direlako, umeak zirenean. Hain zuzen ere, horregatik, parte hartzaile berberak ikertu dituztelako, ELEBILAB ikertaldekoek egindako ikerketetan zentratuko gara gehienbat.

Nafarroako eremu mistoko D ereduko eskola bateko ikasleen gaztelania H1 / euskara H2 garapenaz egindako ikerketa sekuentziales erakutsi dute bi hizkuntzen garapena antzekoa dela 5 eta 11 urte bitartean. Era berean, ikasle horien eta ingurune eta etxe euskaldunetako haurren euskara garapena konparatuta, antzekotasun ugari ikusi da, nahiz eta ezberdintasun batzuk ere badauden, bai euskararen alderdi gramatikal batzuen garapenean eta baita alderdi diskurtsibo batzuen garapenean ere: esate baterako, euskal morfologia gaztelaniazko hitz lexikoei txertatuz hizketa elebiduna erabiltzeko ahalmena agertzen da 5 urterekin eta baita 8rekin eta 11rekin ere; eta denborazko testu antolatzaileen ekoizpena goraka doa adinean aurrera egin ahala. (Ezeizabarrena, 2012; Manterola eta Almgren, 2013; Manterola eta beste, 2013).

Manterolaren (2019) lanean berriz, aipatu berri ditugun ikerketetako parte hartzaileetako batzuen (hain zuzen ere, euskara H2 dutenak) idatzizko gaitasuna aztertzen den (Manterola, 2019), zehazki errezeta bat idatzi behar izan zuten, eta, besteak beste, hauen testu generoarekiko adaptazioa, edukien planifikazioa eta testu antolatzaileak aztertu dira aipaturiko lanean.

Generoarekiko adaptazioari dagokionez, bi taldeen idatzietan, euskara H1 eta H2 dutenen idatzietan, ikus daiteke errezeta dela eta oinarrizko hiru atalak agertzen direla (izenburua, osagaien zerrenda eta elaborazio prozesua).

Testu antolatzaileei dagokienez, oro har, testu guztietan agertzen direnez, bi taldeak gai dira errezetaren prozesua kronologikoki antolatzeko. Honela, euskara H1 eta euskara H2 dutenengan garapena antzekoa dela esan daiteke, ikusi ditugun alderdi guztietan.

Hain zuzen ere, ikerketa hauetan aztertu ziren ikasleen euskararekiko jarrera eta identitateak nahi dira aztertu GRAL honetan aurkezten dugun ikerketan.

3.2. Erabilera

2.1 atalean argitu dugun moduan, Arrue Proiektuaren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko LH4ko DBH2ko ikasleen eskola giroko hizkuntza erabilerak aztertzen dira; hau da, euskara eta gaztelera zenbat erabiltzen dituzten eta erabilera hori errazten edo zailtzen duten aldagaiak zeintzuk diren ikertzen da.

Arrue Proiektuaren (Eusko Jaurlaritza, 2013) emaitzek erakusten dute euskararen erabilera baxuagoa dela adinean aurrera egin ahala: ikasgelan LH4ko ikasleen %60k eta DBH2ko ikasleen %28k erabiltzen dute euskara. Jolaslekuan ere LH4koek DBH2koek baino euskara gehiago erabiltzen dute, nahiz eta gaztelania den nagusi bi taldeetan (%59 eta %76, hurrenez hurren). Hauek izan dira ikerketaren ondorioetako bi: eskolak lehen hezkuntzan bigarren hezkuntzan baino gehiago lortzen du euskararen erabileraren aldeko baldintzak sortzeari dagokionez; eta, aurrekoari lotuta, adinean aurrera egin ahala, eskolaz kanpoko sozializazio espazioek zaildu egiten dute euskararen erabilera.

Gure lanerako garrantzizkoa izan daitekeen beste ekarpen bat muda linguistikoaren inguruko ikerketarena da (Pujolar eta beste, 2017). Muda linguistikoa kontzeptuak adierazten duena da ea hiztunak zenbateraino eta zergatik pasa diren hizkuntza bat egitetik bestea egitera euren eguneroko ohiko elkarrekintzetan. Abian den ikerketa batean, Amorrortu eta bestek (2018) ikusi dute Bilbo inguruko gazteen artean hainbat profil daudela muda linguistikoei dagokienez: gazte batzuentzat euskara ohiko hizkuntza izatera pasa da; beste batzuek, aldiz, ez dute muda linguistikoa egin, hau da, ez dute euskara euren errepertorio linguistiko aktiboan sartu, euskarazko eremu akademikotik harago behintzat.

Amorrortu eta besteren (2017) lanean, euskararen kasuan muda egiteko eragile nagusiak identifikatu dira: testuinguru oso euskaldun batera bizitzen joatea; bikote euskaldun batekin hastea; guraso bihurtzea; sare berrietan edo jarduera berrietan sartzea, hala nola, lagun berriak, lankideak, familia politikoa egitea edota aisialdiko jarduera berrietan hastea; azkenik, bereziki garrantzitsua, kontzientzia hartzea, euskara erabiltzea norberaren erantzukizuna dela barneratzean. Azken hau bizitzaren edozein momentutan gertatu daiteke autoreen esanetan.

Bestalde, euskararen erabilera oztopatzen duten faktoreen artean, gaztelaniaz hitz egiteko ohitura eta inguruan ez hitz egitea nabarmendu dira gehien. Hau da, ikerketa kualitatiboan identifikatu diren ohitura falta eta testuingurua. Bestalde, eta arestian esandakoaren haritik, hitz egiteko erraztasun falta egunerokoan euskara gutxi darabiltenen erdiak agertu du faktore oztopatzaile moduan. Horretaz gain, gaztelaniaren presioa handia dela aipatu dute partaide askok, testuinguru oztopatzailean bizi direnek ez ezik mesedegarrian bizi direnek ere (Amorrortu eta beste, 2017).

Pujolarrek eta bestek (2017) muda linguistikoak gerta litezkeen bizitzako hainbat une bereizten dituzte, eta gure ikerketarako bereziki interesgarriak direnak dakartzagu hona: bigarren hezkuntzako institutu batean hasteko unea, unibertsitatean edota lanean hastekoa, eta bikote harreman bat hastekoa. Ikergai izango ditugun parte hartzaileen bizialdia kontuan hartuta (unibertsitate adina dute, aurrerago ikusiko dugun bezala), arreta berezia jarriko dugu une horietan gertatu (ahal) izan diren muda linguistikoetan eta haien arrazoietan. Kataluniako kasuan, hizkuntza erabileran atzemandako aldaketa handienetako bat institututik unibertsitateara pasatzerakoan gertatzen da (Pujolar eta beste, 2017): jatorrizko gaztelania-hiztunek sozializaziorako hizkuntza gisa hartzen dute katalana. Gainera, muda horretan katalan hiztunek unibertsitateara joaterakoan katalanaren erabileran jaitsiera nabaritzen dutenez, askok gaztelaniaz hitz egiten dutenengan mudak eragiten dituzte; hau da, gaztelaniaz hitz egiten dutenak katalanez hitz egitera igaroarazten dituzte, ingurunea aldatu dela-eta erreakzio gisa.

3.3. Jarrerak eta hizkuntza identitateak

Ikasleen hizkuntzarekiko atxikimendua nolakoa zen jakiteko euskararekin izan zituzten bizipenak aztertu zituzten Olasagarrek eta bestek (2019), 2.1 atalean azaldu ditugun bi bilketak eginez, hau da, heziketa jarduera batzuen aurretik eta ondoren. Heziketa jarduera hauei dagokienez, irakasleek hiru saioko esku-hartzea bideratu zuten. Aukeraketa egin zen jarduera bakoitzak ikasleak maila hauetako batean kokatzeko xedearekin: lehena hiztuna eta bizipen pertsonalak, bigarrena hiztun-taldea eta hizkuntza ohiturak eta hirugarrena euskara eta hizkuntzen ekologia.

Honela, ikasle askoren atxikimenduaren jatorria familia zela ikusi zuten ikerlari hauek, familia zentzu zabalean ulertuta. Hala ere, noski, atxikimenduaren jatorri hau urriagoa zen familia erdaldunetako ikasleen kasuan. Beste askorentzat haur eskola edo

eskola ziren atxikimendu iturri nagusiak (oraingo hau, gehienbat, aipaturiko ikasle talde horren kasuan).

Hiztun-dentsitate txikiko eremuko gehienek euskara erabiltzen ez duten arren, ikasle batzuek hizkuntza ez galtzeko egiten ari diren ahalegina nabarmentzen dute. Ikasleek hitz hauekin adierazten dituzte euskararekin lotutako sentimenduak:

Positiboak	Tartekoak	Negatiboak
Poza Zoriontasuna Alaitasuna Alegria Gozamena Maitasuna Lasaitasuna Eskuzabaltasuna Polita Harrotasuna Eroso Emozioa / zirrara Jatorria Dibertsioa Berdintasuna	Urduritasuna Espeziala Marjinatua Arraroa Zaila Azpergarria	Tristura Pena Haserrea Beldurra Amorrua Desagertu Deseroso Penagarria Lotsa

(Olasagarre eta beste, 2019:41)

Egin zituzten bi galdetegiak konparatuta, Olasagarrek eta bestek (2019) ikusi zuten, kasu batzuetan, hasierako galdetegian euskara ez erabiltzeagatik agertzen ez ziren lotsa eta damua agertzen zirela bigarren galdetegian. Beste kasu batzuetan, aldiz, bigarrenean desagertu zen lehenengoan azaldutako erruduntasun sentimendua gaztelania erabiltzeagatik. Azken kasu horietan, aldaketa euskararen ezagutza nahikorik ez izateak eragindako sentimendu txarrak sortuak dira.

D ereduan euskara ikasitako gazteen hizkuntza jarrerari dagokienez, Ortega eta besteren (2016) liburua erreferentziazko lana da. Beste ekarpen askoren artean, hizkuntza identitate ezberdina duten hiztun berri gazteen profilak identifikatu dituzte (euskaldun zaharra, euskalduna eta euskaldun berria). Euskara etxetik ikasi ez duten gazte gehienek kasuan, euren burua identifikatzerakoan, “ez naiz euskaldun zaharra” diote, “ama-hizkuntzaren ideologia”ren eraginez. Beste hainbatek, “euskaldun berria naiz” diote euren burua identifikatzerakoan, familiako lehen hizkuntza (H1) gaztelania dutelako, gaztelania eguneroko bizitzan gehien erabiltzen duten hizkuntza delako, gaitasunaren ikuspegitik gaztelania hizkuntza nagusia dutelako, eta pentsamenduak eta barne-gramatika gaztelaniazkoak direlako. Gainerakoek, “euskalduna naiz” diote, gaitasun maila altua eta etorri handia dutelako, sare euskaldunetan integratuta

daudelako, eguneroko bizitzan euskara erabiltzen dutelako, eta tokian tokiko aldaera edo erregistro-aldakortasuna darabiltelako, (Ortega eta beste, 2013).

Esan bezala, atxikimenduari dagokionez eskolak, familiak eta eremu soziolinguistikoak garrantzia handia dauka eta, aldagai hauen arabera, besteak beste, perfil anitzak sortzen dira. Hain zuzen ere, Ortégak (2017), hiztun berrien profilak aztertu ditu eta profil-aniztasun horretara eta horiengan eragina duten aldagaietara hurbiltzeko, hiru gazte aukeratu ditu: Eunate, Urko eta Idoia.

Eunate izenarekin izendatutako perfila Zeanurin bizi da. Eskolan, kalean eta auzokoekin ikasi zuen euskara. Lagunekin beti egiten du euskaraz eta euskaraz erdaraz baino hobeto moldatzen da. Euskalkian mintzatzen da. Bere burua euskaldun zahartzat dauka, haiek bezalakoa delako, bere esanetan. EAEn, Eunate bezalako beste hiztun asko daude. Hauek, besteak beste, euskaldunen presentzia oso altua den testuinguru batean bizi dira, ikaste-prozesuak eskola eta «kalea» bateratzen ditu (prozesu formala gehi informala), gaitasun oso ona daukate eta lekuan lekuko aldaera menderatzen dute, euskara asko erabiltzen dute, eta euskal identitatea eta euskararekiko atxikimendua daukate.

Urko izenarekin izendatutako perfila ezker aldean bizi da eta unibertitate aurreko ikasketa guztiak B ereduan egin zituen. Iritzi eskasa du bere euskaraz. Euskaldun berritza dauka bere burua eta, euskaraz jakin arren, ez du esaten euskalduna denik. Euskal herritartza du bere burua eta euskara bere identitatearen berezko ezaugarria da. Konturatu da zein garrantzitsua den euskara ondo jakitea. Horrelako hiztun asko atera dira Ortégaren ikerketan (2017), denak ezaugarri hauekin, besteak beste: euskaldun kopuru baxua duten testuingurutan bizi dira; euskara eskolan bakarrik ikasi dute; erabilera ia-ia eremu akademikoetan bakarrik; gaitasun «mugatua» dutela esaten dute; lagunarteko erregistrorik ez dute; euskararekiko atxikimendua eta euskal identitatea dute. Euskararen aldeko jarrera izan arren, horrelakoek ezin dituzte gainditu euskara erabiltzeko aurkitzen dituzten oztopoak.

Idoia izenarekin izendatutako perfila Getxon bizi da. Euskara eskolan ikasi du eta gutxi erabiltzen zuen, kontzienteki euskaraz aritzea erabaki zuen arte. Bere burua euskaldun berritza du, ikasi duen euskararen izaera akademikoagatik, baina «euskaldunberri» etiketa gainditu daitekeela sinesten du. Euskara bere identitatearen parte da. Bere etorkizunarekiko eta euskararen etorkizunarekiko baikorra da. Jarrera

proaktiboa dauka testu inguru oztopatzaile batean. Honelako hiztunen ezaugarriak eta esperientziak Urkoren antzekoak dira neurri handi baten, baina aldatzen dena hiztunaren jarrera proaktiboa da, Idoiak euskaraz bizitzeko aukerak sortu baititu. Euskararen aldeko barneko motibazioa dute, ondorioz, gero eta gehiago erabiltzen dute. Lehen, gaitasun akademikoa bakarrik zuten, baina erabilerak «kalekoa» ere garatzea ekarri du. Gero eta iritzi hobea dute euren buruari buruz, gero eta euskaldun «hobeak» sentitzen dira.

Gainera, profil horietan eragiten duten faktoreak ere identifikatu dituzte (besteak beste, hizkuntza gaitasuna eta harreman sareak). Gazteek beren burua profil batean ala bestean kokatzeko orduan, gainera, Ortega eta bestek (2016) ikusi dute gazteek beren buruari euskal hiztun gisa ematen dioten benetakotasuna eta zilegitasuna ere aldagai garrantzitsuak direla.

Woolarden (2008) lana aipatuta, Ortega eta bestek zehazten dute hiztunen benetakotasuna eta zilegitasuna elkarrekiko lehian dauden bi baliotan ardatzen dela: "anonimatu" balioa eta "benetakotasun" balioa. Honela, euren ikerketako partaideek batuari esleitzen diote hizkuntza «anonimo»aren balioa, eta aldiz, tokian tokiko hizkerei benetakotasunarena. Balioen dinamika honetan, erreferentea jatorrizko euskal hiztuna da, "euskaldun zaharra", aipatutako ikerketaren arabera.

4. Ikerketarako proposamena

GRALaren azken zatian, lanaren helburu nagusiari helduko digu. Atal hauetan banatu digu: ikerketa helburuak, partaideak, datu bilketarako tresna (galdetegi), aurreikuspenak eta, azkenik, etorkizunerako planteatzen den norabidea.

4.1. Ikerketa helburuak

Nafarroako eremu mistoan D ereduan euskaldundutako gazteen profil soziolinguistikora lehen hurbilketa egitea ahalbidetuko duen galdetegi bat aurkeztu nahi da atal honetan. Izatez, ikerketa zabalago baten lehen pausoa da lan hau. Nafarroako eremu mistoan D ereduan euskaldundutako gazteen euskararen erabilera, jarrerak eta identitateak aztertzea da helburu orokorra. Eusko Jaurlaritzako lankidetza beka baten egitasmoan barruan gauzatzen ari den egitasmoa da, etorkizun hurbilerako aurreikusita dauden eztabaida talde eta banakako elkarrizketen bidez, jarrera eta identitate horien atzean dauden faktoreak ezagutze aldera.

4.2. Partaideak

Gorago aurreratu dugun moduan, ELEBILAB taldearen hainbat ikerketatan 5, 8 eta 11 urterekin parte hartu zuten subjektuak nahi dira aztertu, gaur egun unibertsitate graduko ikasketak egiteko adinean daudela. Lehenago egindako azterlan horietan, parte hartzaileen euskara-gaztelania gaitasunen garapena aztertu zen. Nafarroako eremu mistoko herri batean jaioak dira, etxean gaztelaniaz haziak eta euskara D eremuan ikasiak, bizpahiru urtetatik aurrera. Beraz, euskararen hiztun berri gisa har ditzakegu parte hartzaile hauek, Ortega eta besteren (2016) arabera.

Euskarazko ikaskuntzari dagokionez, Nafarroan gerra aurreko bigarren ikastola izan zen ikergai izango ditugun gazteen herrikoa, 1933an zabaldu zena (Erbiti, 2015). Eredu publikoari dagokionez, herri horretan 1995ean D eredu publikoa ezarri zen, beraz, hortik aurrera bi aukera izango zituzten eskualde horretako gurasoek haurren eskolatzeari euskaraz egiteko (Dufur, 2012). Parte hartzaile hauen herriko euskararen ezagutzari dagokionez, 2010eko datuek diote %21,3k zekiela euskaraz.

4.3. Datu bilketarako tresnak

Ikerketa osoa gauzatzeko proposatzen ditugun datu bilketarako tresnak galdetegiak, eztabaida taldeak eta banakako elkarrizketak dira. Hala ere, ikerketaren puntu honetan, galdetegian zentratuko gara, hau diseinatzea baita Gradu Amaierako Lan honen helburu nagusia eta, gainera, honekin jasotako datuen harira prestatuko baitira, aurrerago, eztabaida taldeak eta banakako elkarrizketak.

4.3.1. Galdetegia

Parte hartzaileek online betetzeko galdetegia prestatu da, haien ezaugarri eta profil soziolinguistikoetara lehen hurbilketa bat egin nahirik. Lankidetzaren Bekako jardueren barruan, unibertsitateko Etika Batzordera bidalita dago datuak biltzeko dispositiboa, baimen zain. Lankidetzaren bekarekin jarraipena emango zaio GRAL honetan aurkeztutako galdetegiari, galdetegiak bueltan jaso, aztertu eta, aurrera begira, eztabaida taldeak eta elkarrizketa pertsonalak egiteko asmoa baitago, gorago esan bezala. Guztira 36 galdera dauzka galdetegiak: batzuk erantzun kopuru mugatukoak dira, beste batzuk 5 aukerako likert eskalakoak, eta azkenik, badira erantzun irekietarako galderak ere. Honela, hurrengo paragrafoetan galdetegia aurkeztera mugatuko gara, galdera multzoek parte

hartzaileen profil soziolinguistikoaren zein alderdi aztertzea ahalbidetuko diguten azalduz. Galdetegia bere horretan ikusi nahi bada, I. Eranskinera jo daiteke.

4.3.1.1. Parte hartzaileen jatorria

Izen-abizenak, emaila eta adina bezalako informazio pertsonala bete ondoren, bizitokiari buruzko datuak eskatuko zaizkie, eurenak zein gurasoenak. Honez gain, eurak eta euren familia egungo bizitokian noiztik bizi diren ere galdetuko zaie, familiak belaunaldiz belaunaldi euskararekin izan dituen harremanak irudikatzeko asmoz.

4.3.1.2. Parte hartzaileen lehen hizkuntza eta hizkuntza gaitasuna, gurasoen hizkuntza gaitasunak eta etxeko hizkuntza ohiturak

Beste galdera multzo batzuek izenburuan aipatutako gaiei buruzko informazioa lortzeko balioko dute. Zehazki hizkuntza gaitasunei eta hizkuntza ohiturei dagokienez, txikitatik gaur egun arte aldaketarik egon den ala ez jakin ahal izateko galderak txertatu ditugu. Esate baterako, hizkuntza ohituren kasuan: "Etxeko hizkuntza ohiturei dagokionez, aukeratu euskaraz zenbat egiten zenuen/duzun". Bi taulatan banatu dugu galdera hau, bata "zure haurtzaroan" eta bestea "gaur egun" izenburupean, bi garaietako informazioa eskatuz, eta bosteko eskala batean erantzuna markatzeko eskatzen zaie parte hartzaileei, "inoiz ez"-etik "beti"-ra arte. Galdera honek lehen pista bat eman diezaguke parte hartzaileen muda linguistikoaren inguruan. Gainera, "ama hizkuntzaren ideologia"k, hiztun berriengan zenbateraino eragiten duen aztertzeko lehen pista jaso genezake hemendik, Ortega eta besteren (2016) lanean egin bezala Euskal Autonomia Erkidegoko hiztun berrien kasuan. Hain zuzen ere, ideologia honen arabera, familian ikasitako hizkuntzak erabat eta bizitza guztirako baldintzatzen du pertsonaren hizkuntza-identitatea.

4.3.1.3. Euskararen erregistroak

Galdera baten bidez, parte hartzaileek euskararen erregistro formal eta informalak zenbateraino erabiltzen dituzten jakin nahi dugu. Iruditzen zaigu pista interesgarria izan daitekeela parte hartzaileen profil soziolinguistikoaz, Ortega eta besteren (2016) lanean faktore garrantzitsua delako erregistro informala menderatzearena, hiztun berrien hizkuntza identitateak direla eta, eta baita muda linguistikoa egiteko eragile gisa ere (Aморrrortu eta beste, 2018).

4.3.1.4. Euskararen erabilera esparruz esparru

Izenburuak argitzen duen moduan, hainbat esparrutan euskara zenbateraino erabiltzen duten galdetuko diegu parte hartzaileei, 1etik (batere ez) 5era (etengabe) doan eskalaren bidez. Beste item batzuen kasuan bezala, hemen ere iraganeko erabilerei buruz ere galdetuko diegu. Zehazki eskola giroari dagokion galderaren bidez, derrigorrezko eskolaldia bukatu eta unibertsitate garaia artean egon daitezkeen muda linguistikoen berri izan genezake, Pujolarren eta besteren (2017) eta Amorrortu eta besteren (2018) lanak kontuan hartuta. Halaber, lan mundutik eta eskola girotik kanpoko esparruetan DBH garaian eta gaur egun euskara zenbateraino erabiltzen duten galdetuta, parte hartzaileen bilakaera soziolinguistikoan aisialdia, kultur kontsumoa eta lagunartea (sare sozialak barne) bezalako sozializazio esparruek joka dezaketen paperaren aztarna batzuk aurkitzea espero dugu.

4.3.1.5. Jarrerak

Galdetegiaren azken atalean, euskararen balio afektibo, identitario, sozial eta ekonomikoari erreferentzia egiten dioten hainbat baieztapen aurkezten zaizkie parte hartzaileei, kasu batzuetan eskala baten arabera (des)adostasuna adieraz dezaten, eta beste batzuetan, hainbat erantzunen artean aukera dezaten. Hona hemen adibide batzuk: “Nahiago dut ingeles maila hobetu euskara baino”; “Ez dago euskara jakin beharrik euskalduna izateko”; “Zer asmo dituzu euskarak bizi duen egoerarekiko?”; “Hemendik urte batzuetarako euskarari zer etorkizun opa diozu?”. Horretaz gain, jarrera eta ideologiarekin lotuta, hiztun profilen irudikapenari buruz ere galdetuko zaie, hau da, euren burua Ortegak eta bestek (2016) azaltzen duten zein aukerarekin identifikatuko zuketena (euskaldun zahar / euskaldun / euskaldun berri), baita euren burua hiztun zilegitzat hartzen duten ere.

5. Ondorio gisa: aurreikuspenak

Eremu mistoko gazte nafarren profil soziolinguistiko orokorra aztertzeke galdetegia aurkezteaz gain, Gradu Amaierako Lan honetan beste bi helburu ere jorratu dira, antzeko helburua izan duten beste ikerketa batzuei lotuta: batetik, datu bilketarako metodologiak berrikustea, eta bestetik, aurrekaritzat jo diren ikerketa emaitza esanguratsu batzuk aurkeztea. Hau guztia ikerketa handiago baten parte da, hainbat aldiz esan bezala, lankidetzak beka bati esker aurrera eramaten ari dena.

Ikerketaren fase honetan atera ditzakegun ondorioak galdetegietatik aterako ditugun profil soziolinguistikoetara mugatu beharra daukagu, hipotesi edo aurreikuspen modura, gainera. Oraindik goizegi da ikerketaren helburu orokorreari erantzungo dieten ondorioak hona ekartzeko.

Nafarroako eremu mistoko euskararen erabilera datuak gogoan (Eusko Jaurlaritzaren eta beste, 2017), aurreikusenezake, oro har, parte hartzaileek euskara gutxi erabiliko dutela. Inpresio orokor honetatik harago, dena dela ere, litekeena da parte hartzaile batzuek harreman sare euskaldunak eraiki izana, Ortega eta besteren (2016) lanean erakusten den moduan hiztun berri batzuen kasuan. Emaitzak alde batera ala bestera egin, uste dugu parte hartzaileen euskara gaitasunak ibilbide oso ezberdina erakutsiko duela DBH bukatu eta gaur arte: batzuen kasuan euskarazko gaitasuna, eta zehazki, ahozko erabilera informaletan jarduteko gaitasuna, berbera edo hobea izango da, eta besteen kasuan, berriz, pentsatzekoa da ezagutza maila jaitsi izana. Puntu honetan, eta Pujolar eta besteren (2017) eta Amorrortu eta besteren (2016) lanak gogoan hartuta, aurreikusten dugu gaztelaniatik euskararako muda linguistikoa gertatuko zela parte hartzaile batzuen kasuan: zehazki, euskara presente dagoen harreman sareetan, unibertsitateetan edo lan munduetan murgildu diren parte hartzaileen kasuan.

6. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Gorago aipatu dugun bezala, lan hau lehen pausoa besterik ez da. Hemen aurkeztu dugun galdetegia parte hartzaileei bidali eta atzera bueltan jaso ostean, galdetegiak kodetu, emaitzak atera eta eztabaida taldeetarako auzi interesgarriak identifikatuko dira. Jarraian, eztabaida taldeak antolatu eta egingo dira. Hurrengo pausoa eztabaida taldeak transkribatzea, kodetzea eta aztertzea litzateke, banakako elkarrizketetarako auzi pertinenteak identifikatzeko. Datu bilketaren azken analisi fasea banakako elkarrizketena litzateke.

Bibliografia

Aldasoro, E. (2001). La evolución de la enseñanza en euskera en Navarra: una perspectiva pedagógica. *Revista Internacional de los Estudios Vascos / Nazioarteko Eusko Ikaskuntzen Aldizkaria / Revue Internationale des Etudes Basques*, 46(2), 593-624.

Almgren, M. eta Manterola, I. (2016). The development of narrative skills in learners of Basque as a second language. *Education Inquiry*, Vol. 7, No. 1, March 2016, pp. 27- 46.

Amorrortu, E.; Goirigolzarri-Garaizar, J. eta Ortega, A. (2018). El proceso de muda en jóvenes universitarios del Gran Bilbao: una primera aproximación. *Actas do XIII Congreso Internacional de Lingüística Xeral, Vigo 2018*, 63-70.

Amorrortu, E., Ortega, A., Goirigolzarri, J. (2017), "Hiztun berriak eta hizkuntza-ohitura aldatzea". Eskuragarri:

<http://www.udaltop.eus/documents/192363/1177782/Estibaliz+Amorrortu.pdf/12e01023-2d11-4f37-b1e8-83a9f89ad2ac> [azken kontsulta: 2019-05-17]

Amorrortu, E.; Ortega, A.; Idiazabal, I. eta Barreña, A. (2009). *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak*. Eusko Jaurlaritza: Vitoria-Gasteiz.

Baztarrika, P. (2016), "VI. Inkesta Soziolinguistikoa". Eskuragarri: <http://patxibaztarrika.eus/vi-inkesta-soziolinguistikoa/> [azken kontsulta: 2019-05-17]

Berasategi, N. (2014), *Hizkuntza eta kultura aniztasuna bilboko eskoletan. Euskararen erabileran eta euskal-kulturaren praktikan eragiten duten faktoreak*. Doktorego tesia. UPV/EHU. Eskuragarri: <https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/13526/047-6-BerasategiTH.pdf?sequence=1&isAllowed=y> [azken kontsulta: 2019-05-18]

Berria (2019). Euskarak eutsi, erdarek irabazi. *Berria*, 2019-02-20. https://www.berria.eus/paperekoa/1911/010/001/2019-02-20/euskarak_eutsi_erdarek_irabazi.htm [azken kontsulta: 2019-02-21]

Dufur, A. (2012). *Lizarra, euskararen biziberritzetik indarberritzera*. Hiznet Hizkuntza Plangintza Gradu ondoko sakontze egitasmoa. UPV/EHU. <https://hiznet.asmoz.org/wpcontent/uploads/2018/10/Lizarra.pdf> [azken kontsulta: 2019-03-29]

Erbiti, F. (2015). *Ametza egia*. Nafarroako Ikastolen Elkarte: Iruñea.

Erize, X. (2018). Nuevos consensos sociales plurales para el fomento de la lengua vasca en Navarra. *Príncipe de Viana*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.

Escandon, A., (2016). Vitoria-Gasteizko gurasoekin euskararen transmisioaz eginiko ikerketa kualitatiboaren ondorio txostena. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*98 (2016): 128-144.

Eusko Jaurlaritza, (2013). *Ikasleak hiztun: 2011ko arrue proiektua: ikerketaren emaitza, adituen iritzi-azalpenak*. Eusko Jaurlaritza: Vitoria-Gasteiz.

Eusko Jaurlaritza; Nafarroako Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoa, (2017). *VI. Inkesta Soziolinguistikoa Euskararen eremu osoa*. Eskuragarri: https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/9954/VI_INK_SOZLG-EH_eus.pdf?1499236557 [azken kontsulta: 2019-05-18]

Ezeizabarrena, M.J. (2012). The acquisition of the (in)consistent ergative marking in Basque: L1 and early L2. *Lingua* 122 (3), 303-317. I. Laka eta B. Fernández (eds). Special Issue accounting for ergativity.

Gerrenabarrena, M. (2015), *EAE n 4. DBHko ikasleen euskara erabileran eragiten duten faktoreak*. Doktorego tesia. UPV/EHU. Eskuragarri: https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/18877/TESIS_GENERABARRENA_URRI_OLABEITIA_MAITE.pdf?sequence=1&isAllowed=y [azken kontsulta: 2019-05-18]

Hernandez, J.M., Altuna, J. (2017), "Gazteak euskararen jolastokian", in Goirigolzarri, J., Landabidea, X., Manterola, I. (koord.), *Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen*. Bilbo: UEU.

Ikardo, U. (2017), Ikastoletako guraso erdaldunak eta euskararen jarraipena lapurdiko kostaldean. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, (105), 11-45.

Kasares, P. (2014), *Euskaldun hazi Nafarroan: euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*. Bilbo: Euskaltzaindia.

Lamarre, P. (2013), "Catching "Montreal on the Move" and Challenging the Discourse of Unilingualism in Quebec". *Anthropologica*, 55, 1-16.

Larrañaga, N., (1995). *Euskalerriko gaztetxoek euskararekiko dituzten jarrerak eta beren eragina euskara ikasi eta erabiltzean*. Doktorego tesia. UPV/EHU. Eskuragarri: http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Nekane_Larranaga_TESI.pdf [azken kontsulta: 2019-05-18]

Manterola, I. (2010). *Euskarazko murgilketa haur hezkuntzan: euskara-gaztelania elebitasunaren azterketa*. Doktorego tesia. UPV/EHU: Vitoria-Gasteiz.

_____, (2019). A study of recipes written by Basque immersion students: any evidence for language revitalization? in N. Yigitoglu eta M. Reichelt (ed.), *L2 writing in non-English languages*. Multilingual Matters: Bristol.

Manterola, I. eta Almgren, M. (2013). Las grandes líneas de progresión de los aprendizajes lingüísticos en la escolarización en euskera. In J. Dolz eta I. Idiazabal (eds.), *Enseñar (lenguas) en contextos multilingües*. UPV/EHU: Bilbao. 217-240.

Manterola, I.; Idiazabal, I. eta Almgren, M. (2013). Basque L2 development in immersion school settings. *International Journal of Bilingualism*, 17(3), 375– 391.

Martinez de Luna, I.; Erize, X.; Etxaniz, J. eta Elizagarate, A. (2016). *Euskararen gaineko oinarritzko diskurtsoen lanketa*. Eusko Jaurlaritz: Vitoria-Gasteiz.

Olasagarre, Y., Ramos, R. eta Vilches, C. (2019). DBH-ko ikasleen hizkuntza atxikimendua hobetzeko ikerketa eta esku hartzea. Eskuragarri: https://academic.e.unavarra.es/bitstream/handle/2454/32611/DBH-ko_ikasleen.pdf?sequence=1&isAllowed=y [azken kontsulta: 2019-05-17]

Ortega, A. (2017). Gazteen hiztun profil berriak eta ideologia berriak, in Goirigolzarri, J., Landabidea, X., Manterola, I. (koord.), *Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen*. Bilbo: UEU.

Ortega, A.; Amorrortu, E.; Goirigolzarri, J. eta Urla, J. (2016). *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*. Deustuko Unibertsitatea: Bilbo.

Ortega, A., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J., Urla, J., Uranga, B. (2013), Hiztun berrien hizkuntza-identitatea: "nolako euskalduna naiz?", *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 8788, 2013 (2-3), 151-170.

Pujolar, J.; González, I. eta Martínez, R. (2017). Gazte katalanen muda linguistikoak. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 104, 51-70.

I. ERANSKINA

Galdetegia

GALDETEGIA

1-Izen-abizenak:

2- E-maila:

3- Zenbat urte dituzu?

4- Gaur egungo egoera:

- Langilea. (zertan?)
- Ikaslea. (zertan?)
- Biak (bai lan eta bai ikasi). (zertan?)
- Beste bat. (zertan?)

5- Zein da zure eta zure gurasoen jaioterria? (egin X bat).

	Nafarroa	Euskal Herriko beste lurralderen bat	Espainia	Europako beste lurralderen bat	Europa ez den beste kontinenteren bat
Zurea					
Gurasoa 1					
Gurasoa 2					

6- Non bizi zara gaur egun? Kanpoan bizi bazara, asteburuetan bueltatzen zara Lizarrara?

a) Kurtsoan/lanaldian zehar:

b) Asteburuetan/opor aldietan:

7- Aurreko galderan Lizarra erantzun baduzu: zenbat urterekin joan zineten Lizarrara bizitzera?

- a) Zu:
- Betidanik Lizarran bizi izan naiz.
 - 1-3 urte nituela etorri nintzen.
 - 4-10 urte nituela etorri nintzen.
 - 11-16 urte nituela etorri nintzen.
 - 17-18 nituela etorri nintzen.
 - Adinez nagusia nintzenean etorri nintzen.

- b) Gurasoa 1:
- Betidanik Lizarran bizi izan da.
 - 1-3 urte zituela etorri zen.
 - 4-10 urte zituela etorri zen.
 - 11-16 urte zituela etorri zen.
 - 17-18 zituela etorri zen.
 - Adinez nagusia zenean etorri zen.

- c) Gurasoa 2:
- Betidanik Lizarran bizi izan da.
 - 1-3 urte zituela etorri zen.
 - 4-10 urte zituela etorri zen.
 - 11-16 urte zituela etorri zen.
 - 17-18 zituela etorri zen.
 - Adinez nagusia zenean etorri zen.

8- Zertara etorri ziren Lizarrara zure gurasoak?

- a) Gurasoa 1:
- Betidanik Lizarran bizi izan da.
 - Ikasketak bukatzera etorri zen.
 - Lanera etorri zen.
 - Bikoteagatik / familiarengatik etorri zen.

- b) Gurasoa 2:
- Betidanik Lizarran bizi izan da.
 - Ikasketak bukatzera etorri zen.
 - Lanera etorri zen.
 - Bikoteagatik / familiarengatik etorri zen.

9- Gurasoen hizkuntza gaitasunei dagokienez, markatu erantzun bat X batekin:

(1=batere ez; 5=bikaina)

a) Ulermenari dagokionez, ahozkoa:

I) Zure haurtzaroan:

	1	2	3	4	5
Guraso 1					
Guraso 2					

II) Gaur egun:

	1	2	3	4	5
Guraso 1					
Guraso 2					

b) Ulermenari dagokionez, idatzizkoa:

I) Zure haurtzaroan:

	1	2	3	4	5
Guraso 1					
Guraso 2					

II) Gaur egun:

	1	2	3	4	5
Guraso 1					
Guraso 2					

c) Ekoizpenari dagokionez, ahozkoa:

I) Zure haurtzaroan:

	1	2	3	4	5
Guraso 1					
Guraso 2					

II) Gaur egun:

	1	2	3	4	5
Guraso 1					
Guraso 2					

d) Ekoizpenari dagokionez, idatzizkoa:

I) Zure haurtzaroan:

	1	2	3	4	5
Guraso 1					
Guraso 2					

II) Gaur egun:

	1	2	3	4	5
Guraso 1					
Guraso 2					

10- Etxeko hizkuntza ohiturei dagokionez, aukeratu euskaraz zenbat egiten zenuen/duzun.
(1= inoiz ez;5= beti):

I) Zure haurtzaroan:

	1	2	3	4	5
Guraso 1					
Guraso 2					

II) Gaur egun:

	1	2	3	4	5
Guraso 1					
Guraso 2					

11- Zure gurasoek euskaraz egiten zuten/dute beraien artean? (1= inoiz ez;5= beti)

I) Zure haurtzaroan:

	1	2	3	4	5
Guraso 1					
Guraso 2					

II) Gaur egun:

	1	2	3	4	5
Guraso 1					
Guraso 2					

12- Zein da zure prestakuntza akademiko maila?

- DBHn ikasteari utzi nion eta lan bila hasi nintzen.
- DBH ostean Batxilergoa egin nuen eta ondoren lan bila hasi nintzen.
- DBH ostean modulu bat/lanbide heziketa egin nuen.
- Batxilergoa/ modulu bat egin ostean, unibertsitate ikasketak egiten ari naiz.

Beste bat:

13- Ikasketei dagokienez, zein da zure hizkuntza ibilbidea?

- D ereduan ikasi dut eta euskaraz ikasten jarraitzen dut/jarraitu nuen.
- D ereduan ikasi dut baina orain gaztelera ikasten dut/gero gaztelera ikasten jarraitu nuen.

14- Ikastolatik irtendakoan non jarraitu zenituen ikasketak? Markatu X batekin. (A eredu: gaztelera baina euskara ikasgai bezala; B eredu: erdia euskaraz eta erdia gaztelera; D eredu: euskaraz eta gaztelera ikasgai bezala; G eredu: gaztelera hutsean).

A eredu	
B eredu	
D eredu	
G eredu	

15- Harremanetan jarraitzen duzu ikastolako ikaskideekin?

- Bai.
- Ez.

16- Lan munduan sartuta bazaude, zein hizkuntzatan egiten duzu lan?

- Euskaraz.
- Gaztelaniaz.
- Euskaraz eta gaztelaniaz.
- Beste hizkuntza batean.
- Ez dut lanik egiten.

17- Gizarte edo gazte mugimenduren batean parte hartzen baduzu, (talde feminista, euskara taldea, gazte asanblada, jai herrikoen konpartsa...), erantzun galdera honi: nola eragin/eragiten du zure hizkuntza ohituretan eta erabileran? (markatu X batekin erantzun zuzena):

- Nire euskara gaitasunak eta erabilerak berdin jarraitzen du.
- Nire euskara gaitasuna eta erabilera hazi egin dira.
- Nire euskara gaitasuna eta erabilera gutxitu egin dira.

18- Zure euskara gaitasunaren bilakaerari dagokionez (DBHtik hona), aukeratu baieztapen egokienak:(1= ez nago batere ados; 5 erabat ados nago).

a) Ahozko ulermenari dagokionez:

(Nahikoa) ona zen eta mantendu egin dut.

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

(Nahikoa) ona zen baina galdu egin dut.

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

(Nahikoa) txarra zen eta txarra izaten jarraitzen du.

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

(Nahikoa) txarra zen baina hobetu egin dut.

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

b) Ahozko ekoizpenari dagokionez:

(Nahikoa) ona zen eta mantendu egin dut.

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

(Nahikoa) ona zen baina galdu egin dut.

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

(Nahikoa) txarra zen eta txarra izaten jarraitzen du.

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

(Nahikoa) txarra zen baina hobetu egin dut.

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

c) Idatzizko ulermenari dagokionez:

(Nahikoa) ona zen eta mantendu egin dut.

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

(Nahikoa) ona zen baina galdu egin dut.

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

(Nahikoa) txarra zen eta txarra izaten jarraitzen du.

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

(Nahikoa) txarra zen baina hobetu egin dut.

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

d) Idatzizko ekoizpenari dagokionez:

(Nahikoa) ona zen eta mantendu egin dut.

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

(Nahikoa) ona zen baina galdu egin dut.

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

(Nahikoa) txarra zen eta txarra izaten jarraitzen du.

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

(Nahikoa) txarra zen baina hobetu egin dut.

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

19- Gazteleraren gaitasunari dagokionez (DBHtik hona), aukeratu baieztapen egokienak:

(1= ez nago batere ados; 5 erabat ados nago).

a) Ahozko ulermenari dagokionez:

(Nahikoa) ona zen eta mantendu egin dut.

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

(Nahikoa) ona zen baina galdu egin dut.

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

(Nahikoa) txarra zen eta txarra izaten jarraitzen du.

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

(Nahikoa) txarra zen baina hobetu egin dut.

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

b) Ahozko ekoizpenari dagokionez:

(Nahikoa) ona zen eta mantendu egin dut.

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

(Nahikoa) ona zen baina galdu egin dut.

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

(Nahikoa) txarra zen eta txarra izaten jarraitzen du.

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

(Nahikoa) txarra zen baina hobetu egin dut.

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

c) Idatzizko ulermenari dagokionez:

(Nahikoa) ona zen eta mantendu egin dut.

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

(Nahikoa) ona zen baina galdu egin dut.

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

(Nahikoa) txarra zen eta txarra izaten jarraitzen du.

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

(Nahikoa) txarra zen baina hobetu egin dut.

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

d) Idatzizko ekoizpenari dagokionez:

- (Nahikoa) ona zen eta mantendu egin dut.

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

- (Nahikoa) ona zen baina galdu egin dut.

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

- (Nahikoa) txarra zen eta txarra izaten jarraitzen du.

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

- (Nahikoa) txarra zen baina hobetu egin dut.

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

20- Euskararen ezagutzari, oro har, dagokionez, aukeratu egokiena:

- Erregistro ezberdinak bereiz ditzaket, euskara batu formala eta euskara batu informala (ez dut berdin hitz egiten lagunekin edo egoera formal batean).
- Erregistro ezberdinak bereiz ditzaket, euskalki bat erabiltzen dut egoera informaletan eta batua egoera formaletan.
- Berdin hitz egiten dut egoera guztietan (bai formaletan eta bai informaletan), beti batuan. Hau da, ez dut erregistrorik bereizten.
- Berdin hitz egiten dut egoera guztietan (bai formaletan eta bai informaletan), beti euskalki batean. Hau da, ez dut erregistrorik bereizten.

21- Erabilera ohiturei dagokienez, aukeratu erantzun egokiena: (1= inoiz ez; 5= beti)

a) Lagunekin euskaraz:

I) DBHn:

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

II) Gaur egun:

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

b) Anai-arrebekin euskaraz:

I) DBHn:

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

II) Gaur egun:

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

c) Ikaskideekin/lankideekin euskaraz:

I) DBHn:

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

II) Gaur egun:

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

d) Kirola praktikatzean, euskaraz: *(hau ez erantzun ez baduzu praktikatzen).*

I) DBHn:

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

II) Gaur egun:

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

e) Ezezagunekin lehen hitza euskaraz:

I) DBHn:

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

II) Gaur egun:

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

f) Prentsa, irratia, sare sozialak (facebook, twitter...), etab. euskaraz:

I) DBHn:

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

II) Gaur egun:

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

g) Kultur industria (liburuak, pelikulak, musika...) euskaraz:

I) DBHn:

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

II) Gaur egun:

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

22- Gazteagoa zinenean, demagun DBHn, irakasleei eskolaz kanpo eta eskola orduetan hizkuntza berean hitz egiten zenien?

- Bai, beti euskaraz.
- Bai, beti gazteleraz.
- Ez, eskola orduetan euskaraz eta kanpoan gazteleraz.
- Ez, eskola orduetan gazteleraz eta kanpoan euskaraz.

23- Ikaskideei dagokienez, gazteagoa zinenean, demagun DBHn, eskola orduetan eta eskolaz kanpo hizkuntza berean hitz egiten zenien?

- Bai, beti euskaraz.
- Bai, beti gazteleraz.
- Ez, eskola orduetan euskaraz eta kanpoan gazteleraz.
- Ez, eskola orduetan gazteleraz eta kanpoan euskaraz.

24- Gazteagoa zinenean, zure irakasleek zein hizkuntzatan hitz egiten zuten euren artean?

- Beti euskaraz.
- Beti gazteleraz.
- Gehienetan euskaraz.
- Gehienetan gazteleraz.
- Bietan antzera.

25- Liburuei, prentsari, irratitari eta telebistari dagokienez, zure erdarazko kontsumoa handiagoa bada euskarazkoa baino, zergatik uste duzu izan daitekeela?

- Nire euskarazko kontsumoa handiagoa da.
- Gaztelaniazko kontsumoa handiagoa da liburuak garestiago direlako euskaraz eta telebistako euskarazko eskaintza murriztagoa delako.
- Euskaraz edozer ulertzea gehiago kostatzen zaidalako.
- Eskaintza bera izanda ere, erdaraz euskaraz baino dibertigarriagoa delako.
- Beste arrazoi bategatik:

26- Euskal kultura kontsumitzen baduzu (musika, liburuak...), zein da arrazoa?

- Ez dut euskarazko kulturarik kontsumitzen.
- Kalitate ona dutelako eta, besterik gabe, liburu/musika talde hori gustatzen zaidalako.
- Beharbada ez zaizkit horren kalitate handikoak pentsatzen, baina euskara bultzatzeko beharrezkoa delako.
- Kalitate ona dutelako eta euskara bultzatzeko beharrezkoak direlako (aurreko bi arrazoiak).

27- Jarrerei eta ideologiari dagokienez, esan ados zauden edo ez ondorengo baieztapenekin:

(1= erabat aurka; 5= erabat ados)

	1	2	3	4	5
Euskarak lana topatzeko bakarrik balio du.					
Nafarroako gobernuak diru gehiago eman behar du euskararen alde.					
Euskarak ikasgelatik kanpo ez du lekurik izan behar, hau da, euskara eskolan inposatutako hizkuntza bat baino ez da.					
Euskal Herrira lanera edo bizitzera datorrenak euskara ikasi behar du.					
Euskara jakitea ez da aski, eguneroko bizitzan erabili behar da.					
Nahiago dut ingeles maila hobetu euskara baino.					
Euskararen aldeko interesa moda besterik ez da.					
Ez dago euskara jakin beharrik euskalduna izateko.					
Burugabekeria da, denok erdara jakin arren, batzuk euskara erabiltzeagatik ezin ulertuta ibiltzea.					
Telebista, egunkari eta irratieta euskara gehiago erabili behar da.					
Euskara ni bizi naizen lurraldeko hizkuntza da.					
Euskara haurren hizkuntza da bakarrik.					

28- Kanean edo lagunartean euskara entzutean zer sentitzen duzu?

- Poza ematen dit.
- Pena ematen dit nik ezin hitz egiteak.
- Amorrua ematen dit.
- Ezer ere ez.

29- Zein neurritan sentitzen duzu, zure kultura eta hizkuntza, mehatxatuak daudela edo mantentzeko zailtasunak dituztela gizarte honetan? (markatu X-rekin).

	Asko	Nahiko	Erdizka	Gutxi	Bat ere ez
Euskara eta euskal kultura					
Gaztelera eta gaztelararen kultura					

30- Zer asmo dituzu euskarak bizi duen egoerarekiko?

- Ez dut pentsatzen ezer egitea.
- Euskara hobetzea eta erabiltzen hastea pentsatzen dut.
- Euskara erabiltzeaz gain euskararen aldeko ekintzetan parte hartzea pentsatzen dut.

31- Ezagutzen duzu Lizarra aldean euskalgintza-kulturgintzako talderik? Zein?

- Bai.
- Ez.

32- Hemendik urte batzuetarako euskarari zer etorkizun opa diozu?

- Euskara galduko balitz ere ez litzaidake axolako.
- Euskara gaur dagoen bezala jarrai dezala nahiko nuke.
- Euskara hurrengo urteetan indartu eta zabaltzea nahiko nuke.

33- Normalean euskaraz hitz egiten aritu lagunartean eta euskara ez dakien lagun bat egotean, ondo deritzozu gazteleraz hitz egiten hasteari?

- Bai, lagun horren errespetuz horrela behar du.
- Bakoitzak nahi duen hizkuntza erabili dezala.
- Ez, euskaraz ikasi dezala gure lagunartean zerbait ulertu nahi badu.

34- Hizkuntza identitateari dagokionez, nola definituko zenuke zure burua?

- Euskaldun zaharra.
- Euskalduna.
- Euskaldun berria.

35- Zure ustez, zerk eragiten du norbere burua modu batera edo bestera ikustea (euskalduna, euskaldun zaharra, euskaldun berria)? (*Bat baino gehiago aukera zenezake*)

- Ahozko gaitasunak.
- Testuinguruak (zure ingurukoak edo herria bera euskaldunak izateak).
- Harreman sareak (hau da, zure harreman sareak euskaraz izateak).
- Gurasoek transmititu izanak.
- Beste bat:

36- Zenbateraino zaude harro zure euskara mailarekin? Erantzuna X batekin markatu.

(1= batere ez; 5= guztiz)

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

MILA ESKER, ZURE PARTEHARTZEAGATIK!
